



Itzala eta distira



KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Eusko Jaurlaritza Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2009





Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>

Jatorrizko izenburua: «The shadow and the Flash» (1903). «Itzala eta distira» ipuina Igela argitaletxeak eman zuen argitara 1991n *Midasen kuttunak* bilduman, Xabier Olarrak itzulita.

Azaleko irudia: Vilhelm Hammershoi, *Hauts-izpiak eguzkitan dantzan*, oihal gaineko olio-pintura (1900). Ordrupgaar Museum (Charlottenlund, Danimarka).



Argitaraldia	1.a, 2009ko abendua
Ale-kopurua	1.000 ale
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Internet	www.euskadi.net
Argitaratzailea	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastian, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz
Imprimaketa	xxxxxxxxxxxxxxxx
ISBN	978-84-457-LIBURUARENA
Legezko gordailua	xxxxxxxxxx

Argitalpen hau Euskara mintzagai bildumako Euskarak erakutsi koloreak ikusten lanarekin batera banatu da.



Aspaldiko kontuak errepatzen hasten naizenean, ohartzten naiz zein bitxia zen adiskidetasun hura. Bata Lloyd Inwood zen: luzea, liraina, gorputz bikainekoa, bizkorra eta beltzarana. Bestea, Paul Tichlorne: luzea, liraina, gorputz bikainekoa, bizkorra eta ilehoria. Bata bestearen errepika zen, kolorean izan ezik. Lloydek begi beltzak zituen; Paulek, urdinak. Aztoramen handiko uneetan, odolak oli-baren kolorea ematen zion Lloyd-en aurpegiari; gorri bizia Paulenari. Baina kolore-gorabehera hori alde batera utzita, berdin-berdinak ziren. Biak atezuan zeuden beti, tentsio handi eta zailtasunetara emanak ziren, kontzertu-aurreko urduritasun puntu horretan bizi ziren.

Baina bazen adiskidetasun eder horretan tartean sartua zebilen bat: txikia, lodia, moztaka eta alferra, eta, esatea damu badut ere, esango dut nor zen: ni neu. Bazirudien elkarrekin borrokan aritzeko sortuak zirela Paul eta Lloyd, eta ni, berriz, haiek adiskidetzeko. Elkarrekin hazi ginen hirurok, eta askotan nik jaso nituen bi haietako bakoitzak besteari botatzen zizkion ostikada beldurgarriak. Elkarrekin lehian ibiltzen ziren beti, batak bestea atzean uzteko eginahalean, eta horrela burrukan hasten zirenean, haien ahaleginak eta grinak ez zuten neurrik.

Ikasketa eta jolasetan nabari zen lehiazaletasun bortitz hori. Paulek Marmion poemako kantu bat ikasten bazuen buruz, Lloydek bi ikasiko zituen. Paulek hirurekin erantzuten zuen, eta Lloydek laurekin berriro, biek poema osoa buruz ikasi arte. Gogoan dut igeri egitera joaten ginen leku batean behin gertatu zena, bien arteko hil edo biziko borrokaren adierazgarri garbia. Gure taldeko mutilok bagenuen jolas bat, sakonean hiru metro pasatxo zituen putzu batean murgildu, eta urpean, sustrairen bati helduta, ea gehien nork iraun. Paul eta Lloyd ezin geratu izan ziren elkarrekin murgildu gabe, handiegia baitzen tentazioa. Bien aurpegi irmo eta setatiak



«The Shadow and the Flash» ipuina 1903an agertu zen New Yorkeko *The Bookman* literatur aldizkarian.



1906an *Moon-Face & Other Stories* bilduman ere argitaratu zuten (The Macmillan Company, New York).



ikustean, aurrentipen beldurgarria izan nuen. Minutuak bazihoazen aurrera, uhinak geldituz zihoazen, putzuko ur gaina geldi eta bare geratu zen eta han ez zen bururik azaleratzen, ez beltz, ez urrezaturik, arnasa hartzera. Goian ginenok kezkatuta geunden. Gehien irauten zuen mutikoaren marka hautsia zen eta han ez zen ezeren seinalerik. Aire ponpoiloak geldiro igotzen ziren ur gainera, birrikak artean lanean ari zirela adieraziz; gero, ahitu ziren haiek ere. Segundo bakoitza amaigabea bihurtu zen; suspensea gehiago jasan ezinik, uretan murgildu nintzen.

Hondoan aurkitu nituen, sustraiei tinko eutsiz, buruak elkarrengandik 30 cm-ra zituztela, elkarri bekoz beko begira. Bere kabuzko asfixiaren torturapean bihurritu eta kiribilduz, gorriak ikusten ari ziren; ez bata, ez besteak ez zuten etsi eta galtzailatzat emana izan nahi. Pauli sustraia utzarazten saiatu nintzen, baina gogor egin zidan amorrarioz. Orduan, arnasarik gabe geratu, eta ur gainera atera nintzen izuturik. Berehala zer gertatzen zen azaldu nien lagunei, eta dozena erdi bat mutil koskor murgildu ginen. Indarrean behartu genituen askatzera. Atera ahal izan genituenean, konortea galdurik zeuden biak, eta jirabirarazi, igurtzialdi bat eta zafladak eman ondoren, etorri ziren bere onera. Hantxe itoko ziren, inor tartera sartu ez balitz.

Paul Tichlornek Gizarte Zientziak ikasteko asmoa zuela zabaldu zuen unibertsitatera iritsi zenean. Lloyd Inwoodek, garai bertsuan iritsita, ikasketa horiexek aukeratu zituen. Baina Paulek ezkutuan Natur Zientziak ikastea pentsatua zeukan betidanik, gero kimikan espezializatzeko, eta azken orduan ikasketaz aldatu zen. Lloydek, urteko hartako lana antolatua edukiagatik eta eskola batzuetara joana izan arren, berehala hartu zuen Paulen bidea, eta Natur zientzietan matrikulatu zen, kimika espezialitatean. Bien arteko lehia azkar asko geratu zen agerian Unibertsitate osoan. Bakoitza akuilua zen bestearantz, eta ordu arte beste inor ez bezain gogor saiatu ziren kimikan — hain gogor, non, beren diplomak jaso zituztenean, gai baitziren estutasunak sortzeko kimikako nahiz nekazaritza-institutuko


edozein kimika-irakasleri, Moss zaharra, Saileko Zuzendaria, alde batera utzita. Eta hura bera ere harri eta zur eginda utzi zuten behin baino gehiagotan. Lloydek deskubritutako itsasapoaren «bazilo hilgarria» eta potasio zianuroarekin egin zituen esperimenduek mundu zabalean sonatuak egin zituzten bai bera eta bai Unibertsitatea. Baina Paul ez zen geratu milimetro bat ere atzerago: izan ere, amebaren jardunak azaltzen zituzten koloideak laborategian sortzea lortu zuen eta itsasoko bizidun primarioei sodio kloruroa eta magnesio soluzioak emanez egindako esperimendu harrigarrien bitartez argitu zituen haien ernaltze prozesuak.

Hala ere, ikasleak ziren garaian azaldu zen Doris Van Benschoten haien bizitzan, kimika organikoaren misteriorik barreneetan murgildurik zebiltzanean. Lloyd izan zen bien artetik hura ezagutu zuen lehena, baina hogeita lau ordu baino lehen Paulek lortu zuen norbaitek berari ere aurkeztea. Biak maitemindu ziren neska hartaz, jakina, eta bizitzari zentzua ematen zion gauza bakarra bihurtu zitzaion biei. Sugar eta grina berdinez ibili zitzaizkion atzetik, eta hain gogorra izan zen hura bereganatzeko norgehiagoka, non ikasleen erdiak apustu zentzugabeak egiten hasi baitziren atarramentuari buruz. Moss «zaharra»k berak ere, egun batean, bere laborategi pribatuan Paulen demostrazio harrigarri baten lekuko izan ondoren, hilabeteko soldata apustu egin zuen baietz Paul ezkondu Doris Van Beschotenekin.

Azkenean, neskak konpondu zuen arazoa bere modura, eta guztiek onetsi zuten haren erabakia, bi kortejatzaileek izan ezik. Biei deitu, eta esan zien ezin zuela bietako bat hautatu, berdinez maite baitzituen; eta poliandria, zoritxarrez, zilegi ez zenez Estatu Batuetan, uko egin beharko zela bietako batekin ezkontzeko ohore eta zorionari. Bakoitzak besteari bota zion zorizaiztoko bukaera horren errua, eta elkarri zioten amorrua areagotu egin zen.

Baina gauzak laster iritsi ziren gailurrera. Beren diplomak eskuratu eta mundutik baztertu zirenean hasi zen bukaeraren

Euskarazkoa Igelak plazaratu zuen 1991n, Xabier Olarrak itzuli eta atondutako *Midasen kuttunak* ipuin bilduman (Igela Argitaletxea, Zarautz). Edizio honetarako itzultzaileak testua berariaz berrikusi eta txukundu du. Eskerrik asko Xabier.



Zer dakigu Jack Londonen gainean? Hona gure entziklopediek zer dioten:

Harluxet Hiztegi Entziklopedikoak horrela dakar: London, Jack (j.i. John Griffith London) . Idazle estatubatuarra (San Frantzisko, 1876 - Glen Ellen, Kalifornia, 1916). Abentura-nobela ugari idatzi zituen (*Oihanaren*

deia, 1903; *Letagin zuria*, 1907). Ospe eta irabazi handitan sartuta, badirudi bere buruaz beste egin zuela. Ideologiaz sozialista eta iraultzailea, mundu osora zabaldu zen bere ospea, batez ere SESBera.

Eta Lur Hiztegi

Entziklopedikoak

horrela azaltzen du:

London, John Griffith.

(Jack London deitua).

Estatu Batuetako

eleberrigilea (San

Francisco, 1876 - Glen

Ellen, Kalifornia, 1916).

Oso abenturazalea zen eta

grina hori erakutsi zuen

bere eleberrietan.

Londonek bere joan

etorrietan oinarritu zuen,

hein handi batean, bere

obra; fikzio erromantikoa

eta aldi berean errealista,

batzuetan gordina, sortu

zuen. Arrakasta handia izan

zuen. Egilearen garaiko

gizarteko ezak eta gabeziak

ere agertu zituen. Obra

ezagunenak: *The Call of the*

Wild (1903, *Oihanaren*

deia, G. Etxeberriak

euskarara itzulia), *The Sea-*

Wolf (1904, *Itsas otsoa*),

White Fang (1907, *Hagin*

zuria), *Martin Eden* (1909).

London sozialista zen, eta

bere eleberrietan sarritan

adierazi zituen bere iritziak:

hasiera. Biak ziren dirudunak, ez zuten lanerako gogo handirik, eta premiarik, berriz, are gutxiago. Nire adiskidetasuna eta elkarri zioten etsaigoa ziren bien arteko lotura bakarrak. Bisitan maiz etortzen zitzaizkidan arren, kontu handiegia jartzen zuten halakoetan elkarrekin topo ez egiten, nahiz eta noizbehinka ezinbestekoa izan zirkunstanzia haietan.

Gogoan dudan egun horretan, Paul Tichlornek nire idazgelan eman zuen goiz osoa, zientzia aldizkari baten irakurketan murgilduta. Hala, nire gauzetan aritzeko aukera izan nuen eta kanpoan nintzen nire arrosak zaintzen, Lloyd Inwood iritsi zenean. Gorapean aihen-belarrak moztu, inausi eta, ahoa iltzez beterik nuela, iltzatzen nituen bitartean, Lloyd atzetik etorri, eta noizbehinka lagundu egiten zidan. Ikusezinen kastaz hasi ginen hizketan, gizonen oroimenean geratu den jende bitxi deslai horretaz. Lloyd solasarekin berotzen hasi zen eta ezinegonezko keinu biziak egiten, eta berehala atera zuen ikusezintasunaren izaera fisikoaren eta posibilitateen gaia. Gauza zeharo beltz batek ikusmen zorrotzenari ihes egin ziezaiokeela baieztatu zuen.

—Kolorea sentsazio bat da —esan zuen—. Ez du berezko izaterik. Argirik gabe, ezin ditugu ez koloreak, ez gauzak ikusi. Gauza guztiak beltzak dira ilunpetan, eta ezin dira ikusi. Haiekin oztopo egiten duen argirik ez bada, ez dago islatu eta begiraino itzul daitekeen argirik, eta, beraz, ez dugu haren izatearen ikusmenezko frogarik.

—Egun argiz gauza beltzak ikusten ditugu, ordea —aurka egin nion.

—Egia —erantzun zidan goxoki—, zeharo beltzak ez direlako, horrexegatik. Beltz-beltzak, erabat beltzak balira, ez genituzke ikusiko. Mila eguzkiren argitan ere ezingo genituzke ikusi! Horregatik diot nik margo-gai egokiak hartu eta behar bezala nahastuz gero, zeharo beltza litzatekeen pintura egin litekeela eta, pintura hori zerbaiti emanez gero, ikusezin bihurtuko lukeela margotutako gauza.



—Aurkikuntza polita izango litzateke —esan nion konpromisorik hartu gabe, ideia hura fantasiatsuegia baitzen itxuraz, eta ez baitzituen emango espekulazio hutsezko ondorioak besterik.

—Nola polita! —Bizkarrean zaflada bat eman zidan Lloydek—. Baldin bait ere! Pintura horrekin neure burua estaliko banu, neure mendean hartuko nuke mundua, adiskide. Erregeen sekretuak eta gorteetakoak, diplomatikoen eta politikarien jukutriak, Burtsako espekulatzailen azpijokoak, finantza talde eta sozietateen asmoak ezagutuko nituzke. Irispidean izango nituzke gauzen barne-taupadak, eta munduko ahalmenik handiena bihurtuko nintzateke. Eta gainera... —isilik geratu, eta ondoren erantsi zuen—: zera, esperimentuei hasiera eman diet eta bide zuzenean nabilela esan dezaket.

Atetik heldu zen algara batek asaldatu gintuen. Hantxe zegoen zutik Paul Tichlorne, ezpainak irri maltzurrez kizkurturik.

—Gauza bat ahaztu zaizu, Lloyd maitea —esan zuen.

—Zer ahaztu zait, ba?

—Ahaztu, bai, ahaztu —jarraitu zuen Paulek—. Itzala ahaztu zaizu.

Lloyden aurpegia ilundu egin zen, baina erdeinuz erantzun zuen:

—Eguzkitakoa erabil dezaket, ez da burua asko nekatu behar horretaz jabetzeko. —Gero, oldarrean eraso zion bat-batean—. Begira, Paul, zer komeni zaizun baldin badakizu, hobe duzu gai horretatik urruntzea.

Elkarrekikoak hor bukatuko zirela zirudien, baina Paulek umore onez egin zuen barre.

—Ez dut zure margo-gai horietan eskuak zikintzeko asmorik. Espero duzun hoberena baino emaitza hobeak lortuko bazenitu ere, beti egingo zenuke oztopo itzalarekin. Ezin

The Iron Heel (1908, *Burdinazko orpoa*).

Baliteke hiztegiatako bi sarrera horiekin nahikoa izatea. Gerta liteke, bestela ere, ilustratzen jarraitu nahi izatea. Horrela bada, irakurle, eutsi testuari, ez zara damutuko eta.

Ikusiko dugunez Londonen bizimoduak bere testugintza ezaugarrituko du, bata besteari estu lotuta agertuko



dira. Han-hemen ikusitakoak, ikasitakoak, bizi izandakoak... den denak islatuko dira hain bizitza laburra izan zuen idazlearen ekoizpenean. 40 urterekin hil egin zen Jack eta bitarte horretan 22 eleberri, 18 ipuin-bilduma, 8 saiakera eta liburu autobiografiko, 3 antzezlan, 157 prentsarako artikulu... horiek guztiak idaztera heldu zen. Egiten zuena egiten zuela egunean 1.000 berbatik gora idatzi ei zituen.





Jack London San Frantziskon jaio zen 1876an, Flora Wellmanen seme. Aita nor izan zitekeen, William Chaney aipatu dute biografo batzuek, kazetari, abokatu eta astrologoa izaniko hura. Flora musika irakaslea izan zen. Jack jaio zen urte berean ama John Londonekin ezkondu zen eta beronen abizena jaso zuen seme txikiak. Gazte ekin zion irakurtzeari eta bide horretatik hezi zuen bere burua, Oaklandeko herri liburutegiko geletan, 10 urte besterik ez zuenean. Hamalau urte zituenean eskola laga zuen eta itsasoan jardun zuen lanean sasoi batean; baita erromes ibili ere noranahiko trenetan eta lekuetan. 1894an Niagara inguruan zebilela, atxilo hartu zuten

duzu saihestu. Nik kontrako bidetik joko dut. Nire teoriaren funtsetik beretik ezabatuko dut itzala.

—Gardentasuna —bota zion Lloydek hitzetik hortzera—. Baina ezin da lortu.

—Ez, jakina. Horixe ezetz —eta Paulek sorbaldak goratu zituen eta basa-arrosen arteko bidezidorretik alde egin zuen.

Hori izan zen hasiera. Berezkoa zuten kemen izugarriarekin egin zioten aurre arazoari, bietako batek arrakasta lortuko zuelako beldurra niri sartzerainoko gorroto eta amorruekin egin ere. Nigan ezarri zuten konfiantza guztia bai batak eta bai besteak, eta bien sekretuen gordailu bihurtu nintzen ondorengo espermentazio aste luzeetan; haien teoriaren entzule eta frogaldien ikusle izan nintzen. Baina ez nion azaldu bietako inori bestearen aurrerapausoen aztarnarik txikiena ere, ez hitzez, ez bestelako adierazpidez, eta biek ontzat eman zuten nire isiltasuna.

Lloyd Inwoodek, luzaro eta etengabe lan egin ondoren, lasaibide bitxia zeukan, buru eta gorputzeko estutasuna gehiegizkoa zenerako: boxeoa-borrokatara zaletzen hasi zen. Bere ikerketen azken emaitzen berri emateko, arrastaka eraman ninduen ikuskizun basati horietako batean hartu zuen haren teoriak berrespen harrigarria:

—Ikusten duzu gizon hura, patilla gorriduna? —galdetu zidan, aurrez aurre zegoen bosgarren eserleku-ilara seinalatuz—. Eta ondokoa ikusten duzu, kapela zurikoa? Ba, bien artean tarte bat dago, ezta?

—Bai, jauna —erantzun nion—. Eserleku batek bereizten ditu. Eserleku hutsa da bien arteko hutsunea.

Lloyd nigana makurtu, eta serio mintzatu zitzaidan:

—Patilla gorridunaren eta kapela zurikoaren artean Ben Wasson dago eserita. Lehen ere aipatu izan dizut. Bere mailako

boxeolaririk hoberena da. Gainera, beltza da, Karibekoa, arraza garbikoa, Estatu Batuetako beltzena. Beroki beltz bat dauka soinean, botoiak goitik beheraino lotuak dituela. Sartu eta eserlekuan jarri denean ikusi dut. Eseri orduko ezkutatu egin da. Erreparatu ongi, agian irribarrez ariko da.

Sala gurutzatzera nindoan Lloyd-en baieztapena egiaztatzeko asmoz, baina eutsi egin zidan.

—Zaude —esan zuen.

Geroxeago, erreparatu egin nion, harik eta patilla gorri-dunak, eserleku hutsari mintzatzen ari balitz bezala, burua aldamenara jiratu zuen arte; eta orduan ikusi nituen begi pare baten zuriuneak jiratzeko hutsik zegoen leku hartan, bi hortz-ilarak osatzen zituzten ilargi-erdiak, eta une batez ikusi ere egin nuen beltzaren aurpegi lausoa. Baina irribarrea bukatu zenean, ikusezina bihurtu zen, eta eserlekua hutsik zegoela zirudien berriro.

—Zeharo beltza balitz, aldamenean eseri, eta ez zenuke ikusiko —esan zuen Lloyd-ek, eta demostrazioak ia konbentzitututa utzi ninduela aitortu behar dut.

Geroztik, behin baino gehiagotan izan nintzen haren laborategian, eta beltz erabatekoaren bila buru-belarri aurkitu nuen beti. Haren esperimenduak margo-gai guztietara hedatu ziren: kriseiluen kedarrak, bikeak, landare kiskalduak, gantz eta koipeen kedarra, eta kiskaldutako zenbait animaliena.

—Argia oinarrizko zazpi koloreez dago osatua —baieztatu zuen—. Baina bere baitan, berez, ikusezina da. Gauzetan islatuz bakarrik bihurtzen dira ikusgarri argia bera eta gauzak. Baina islatzen den aldea bakarrik bihurtzen da ikusgarri. Adibidez, hona hemen tabako-kutxatila urdin bat. Argiak honen kontra jotzen du eta, bat izan ezik, osatzen duten kolore guztiak —morea, anila, berdea, horia, laranja eta gorria— irentsi egiten ditu. Horregatik ez ditugu beste koloreak ikusten, irentsi egin dituelako. Urdina da salbuespen

arrote ibiltzeagatik. Halako bizipen eta beste geroko lan batzuetan erabiliko zituen, eta hor da, esaterako *The Sea-Wolf*, 1904ko eleberria, Itsas Barean izan zuen eskarmentua jasotzen duena, edo 1907ko *The Road* narrazio bilduma, Kerouac edo Steinbecken moduko idazleei eragingo diena.

Esan bezala irakurle porrokatua zen, eta oinarrizko eskolan ez bestetan ibilita, bere kasa aritu zen. Leitutakoan artean denetarik topatuko dugu: fikzioa, filosofia, zientzia politikoa, poesia...


Dagoeneko idazten hasia zen eta 19 urte beteta Berkeleyko unibertsitatean sartzeko eskabidea egin zuen. Dena den 1897an, ikasten urte bete baino gehiago eman barik, urte





bilatzaile bihurtzea erabaki zuen. Urte horretan Klondiken, Kanadako lurraldeetan, urrea aurkitu zuten eta jendea aldra handitan bertaratu zen. Jackek ez zuen arrakastarik izan, baina Dawsonen eman zuen negu hartan bete-betean jardun zuen idazten eta istorioak gorpuzten.

Etorkizunean idazlea ezagun egingo duten narrazio asko sasoi honetan itxuratu ziren: *The Call of the Wild* eleberria da berauen adierazpen handiena. 1903an argitaratu



bakarra. Xurgatu orde, islatu egiten da. Horregatik ematen digu tabako-kutxak urdinaren sentsazioa. Xurgatuak direlako ez ditugu ikusten beste koloreak. Urdina besterik ez dugu ikusten. Arrazoi berberetatik da berdea belarra. Argi zuriaren uhin berdeak iristen zaizkigu begietara.

—Gure etxeak pintatzen ditugunean, ez diegu kolorea ematen —esan zidan beste batean—. Zenbait substantzia ematen dizkiegu, koloreztatu nahi dugunaz gainerako kolore guztiak argi zuriari xurgatzeko gai direnak. Gauza batek begiari kolore guztiak islatzen dizkionean, zuria iruditzen zaigu. Kolore guztiak xurgatzen ditunean, beltza da. Baina, lehen esan dudan bezala, oraindik ez daukagu erabateko belztasunik. Ez dira xurgatzen kolore guzti-guztiak. Erabateko beltza babesten badugu distira handiko argitik, zeharo ikusezina izango da. Begira horri, esate baterako.

Bere laneko mahaian zegoen paleta seinatu zuen. Ñabardura desberdinetako zenbait margo-gai beltz zeuden. Bazen bat han juxtu-juxtu ikusi ahal izan nuena. Sentsazio lauso bat helarazi zidan begietara, eta nik, begiak igurtzi ondoren, berriro begiratu nion.

—Hori —esan zuen harro—, horixe da zuk edo beste edozein bizidunek sekula ikusi duen beltzik beltzena. Baina itxoin, eta lortuko dut belztasun bat, behin eta berriz begiratuagatik inork ez ikusteko modukoa.

Paul Tichlorne, berriz, maiz aurkitzen nuen buru-belarri aztertzen argiaren polarizazioa, difrakzioa eta interferentzia, difrakzio bakuna eta bikoitza, eta era guztietako konposatu organiko bitxiak.

—Gardentasuna: gauzaren egoera bat, argiaren itzal guztiei alderik alde igarotzen uzten diena —hori izan zen eman zidan definizioa—. Horrexen bila nabil. Lloyd erabateko opakotasunarekin dabil borrokan. Nik itzuri egiten diot. Gauza gardenek ez dute itzalik ematen; ez dute argi uhinik islatzen

—erabat gardenak diren gauzak, diot—. Beraz, horrelako gauza batek, argiari itzuri egiten badio, ez du itzalik ematen, argia islatu baizik, eta horrexegatik da ikusezina.

Beste behin, leiho ondoan geundela, leiho-ertzean lerrokatuak zeuden lente batzuk leuntzen ari zen Paul. Bat-batean, hizketako eten baten ondoren honako hau esan zuen:

—Ai, lente bat erori zait. Atera ezazu burua, eta begiratu nora joan den.

Burua atara nahi izan nuen, baina kopetan hartu nuen kankatekoak atzera eginarazi zidan. Bekain mailatua igurtzi nuen, eta kontuak hartuz begiratu nion Pauli. Bera gustura ari zen barrez, haurren modura.

—Eta? —esan zuen.

—Eta? —errepikatu nuen.

—Zergatik ez diozu ongi erreparatzen? —esan zidan.

Eta horixe egin nuen. Burua atara baino lehen, nire zentzumenek, automatikoki jokutzen ohituak, han ezer ez zegoela adierazi zidaten, leiho-zuloa hutsik zegoela. Eskua luzatu, eta gauza gogor, leun, hotz eta lau bat zegoela sentitu nuen, ukimenak beira zela adierazi zidana. Berriro begiratu arren, ezin izan nuen ezer ikusi.

—Kuartzo-harea zuria, sodio karbonatoa, kare hila, beira haustua, manganeso peroxidoa —bota zuen Paulek errenkadan—, hor duzu munduko kristalik onena, Frantziako Saint Gobain enpresa bikainak eginga, berak egiten baitzuen kristalik finena, eta hau, berriz, sekula egin duten kristalik perfektuena. Dirutza balio du. Baina, begira! Ikusezina da. Buruarekin jo arte ez zara konturatzen hor dagoela.

—Bai, adiskide, baina hori demostrazioak egiteko tresna bat besterik ez da. Badira gai batzuk, berez opakuak, behar bezala nahastuz gero, gauza gardena osatzen dutenak. Horiek, ordea,

emandakoa, aurretik *Saturday Evening Post* egunkariak kaleratutako narrazio laburrean du oinarri. Buck txakurra famatu zuen Londonek lan honetan, eta animaliek jasotako tratu txarrek kezka handia sortu zioten. Gerora ere txakurren bizitza



dohakabea azaldu zuen *Jerry of the Islands* (1917) eta *Michael, Brother of Jerry* (1917) eleberrietan. Animalien zori gaiztoa gizartearen islatzat aurkeztu zuen. Alaskak erakutsitako paisaia ere honako lan hauetan ikusgai izango dugu: *White Fang* (1906) eta *Burning Daylight* (1910).

1898an, etxera itzulita, gogo betean ekin zion idazteari eta argi zeukan

langintza horretatik lortu nahi zuela ogibidea. *Overland Monthly* eta *Atlantic Monthly* aldizkariak Londonen aurreneko ipuinak argitaratu zituzten.

1900. urtean London Bess Maddern anderearekin ezkondu zen, hiru urte iraungo zuen harremana, baina itxura batean ezin ondo konpondu eta Jackek



etxetik alde egin zuen. Bi alaba izan zituzten hiru urte horietan. Handik gutxira Jackek Charmian Kittredge editorea ezagutu zuen, eta harekin ezkondu zen; hil bitartean bikotekide eta lankide izan zuen.

Biek ala biek itsasoa zuten gustuko eta *Snark* ontzian egindako bidaldiak horren lekuko dira: Hegoaldeko Itsasoak, Australia...

kimika ez-organikoaren alorreko gertaerak dira, nik uste.

—Egia borobila, baina hemen zutik, bi oinen gainean jarrita, ausartzen naiz esatera gai naizela ez-organikoan gertatzen dena organikoaren alorrean bikoizteko.

—Begira! —eta likido arre eta opaku batez betetako probeta bat jarri zuen nire eta argiaren artean. Hara beste probeta batean zeukana hustu, eta berehala argi eta distiratsu bihurtu zen lehenbizikoa.

—Begira! —mugimendu azkar eta urduriz beste probeta bat hartu, eta ur nahasi zuri bat ardo kolorekoa bihurtu zen, eta larua zen beste bat, berriz, marroi iluna. Tintaroi paper puska bat azido batean sartu, eta bat-batean gorria bihurtu zen; gero, alkali batean sartu, eta urdina bihurtu zen berehala.

—Tintaroi papera oraindik ere tintaroi papera da —azaldu zuen hizlari baten tonu handizalean—. Ez dut beste ezer bihurtu. Orduan, zer egin diot? Molekulen banaketa aldatu, besterik ez. Aurrena argiaren kolore guztiak, gorria izan ezik, irensten zituen bitartean, gero, egitura molekularra aldatu egin zaio, eta horren ondorioz irensei egin ditu gorria eta gainerako kolore guztiak, urdina izan ezik. Nahi adina aldiz egin daiteke. Orain, berriz, beste hau egiteko asmoa dut —pixka batean isilik geratu zen—: ikusi dituzunen antzeko aldaketa molekularrak bizidunen organismoetan eragiteko gauza diren erreaktiboak aurkitu nahi ditut. Baina aurkitzera noan erreaktibo horiek, dagoeneko aurkitzeko bidean nagoen horiek, ez dute egitura molekularra urdinera, gorrira, edo beltzera aldatuko, gardentasunera baizik. Argi osoa igaroko da alderik alde. Ikusezina izango da. Ez du inolako itzalik emango.

Aste batzuk geroago, Paulekin joan nintzen ehizara. Aspaldi ari zitzaidan agintzen zakur paregabe batekin ehizan ibiltzeko parada izango nuela; gizonak sekula ehizan lagun izandako zakurrik bikainenarekin, haren hitzetan. Halaxe ziurtatu zidan



behin eta berriz, nire jakin-mina piztu arte. Baina goiz hartan desilusionatu egin nintzen, ez baitzen zakurrik ingurumenean.

—Non sartu ote da? —esan zuen Paulek axolagabe, eta soroetara atera ginen.

Une horretan ezin nuen asmatu zerk aztoratzen ninduen, baina gaitz hilgarriren batek mehatxatzen ninduela iruditzen zitzaidan. Nerbioetatik jota nenbilen eta sartzen ari zitzaizkidan ziri harrigarrien ondorioz, zentzumenak neure kontra nituela zirudien. Soinu arraroek aztoratzen ninduten. Belar zanpatuaren hotsa aditzen nuen, eta, halako batean, lur zerrenda harritsu baten parean, pauso hotsa.

—Zerbait entzun al duzu, Paul? —galdetu nion halako batean.

Baina berak buruaz ukatu, eta aurrera jarraitu zuen zuzenean.

Langa baten gainetik pasatzean, zakur baten intziri ahul eta estua entzun nuen, nigandik metro erdi batera itxuraz, baina begiratu, eta ez nuen ezer ikusi.

Lurrean eseri nintzen, ahulduta eta dardarka.

—Paul —esan nuen—, hobe dugu etxera itzuli. Gaizkitzera noala uste dut.

—Ez da ezer, gizona —erantzun zidan—. Eguzkiak burura jo dizu, ardoa balitz bezala. Berehala jarriko zara ongi. Eguraldi bikaina dago.

Baina zumar arteko bidezidor batetik nindoala, zerbaitek hanka ukitu zidan pasaeran; estropezu egin, eta ia erori nintzen. Paulengana bihurtu nintzen bat-batean asaldatuta.

—Zer zabilta? —galdetu zidan—. Zure kasa estropezuka?

Mingainari hortz tartean eutsiz aurrera jarraitu nuen, baina zeharo nahasturik nengoan, gaitz bitxi eta ezkutuko batek nerbioetara jo zidala etsita. Ikusmena libratua zen ordu arte,

1911ko *The Cruise of the Snark* lanak halakoen berri emango digu. Itsasoa kontakizun duten eleberriak dira *Adventure* (1911), *The Munity of the Elsinore* (1914) eta arestian aipatutako *The Sea Wolf* (1904), *South Sea Tales* (1911), eta *A Son of the Wolf* (1912) ipuin-bildumak.

1905ean Jackek Beauty Ranch eskuratu zuen, 1.000



akreko baserria Glen Ellen izeneko herrian, Kalifornian, 26.000 dolar ordainduta. «*Andrearekin batera, etxaldea dut gauzarik preziatuena*» idatzi zuen inoiz. Nekazaritza eta abeltzaintza kontuez luze irakurri zuen eta literaturgintzan irabazitako diruetako asko bertan inbertitu zituen.





Gaztetan bizi izandakoek eta irakurritakoek Londonen munduarekiko ikuspegia eta pentsaera politikoa ñabartuko dute. 1896an Ameriketako Alderdi Sozialista Laboristako kide egin zen (Socialist Labor Party) eta jendaurrean noizbait hizlari aritutakoa zen Oaklanden; behin atxilotu ere egin zuten. 1901ean alderdi hura laga eta sortu berria zen Ameriketako Alderdi Sozialistako partaide bihurtu zen (Socialist Party of America). Oaklandeko alkate izateko aurkeztu zen urte horretan bertan, baina arrakasta txikiko ekimena izan zen: 245 bozka baino ez zuen jaso. 1905ean osterera ere aurkeztu zen eta orduan 981 boto eman zizkioten. Hainbat dira politikaren gainean idatzitako testuak: *The War Of The Classes* (1905) edo *Revolution and Other Essays* (1906).

baina zabaldi batera iritsi ginenean, ikusmena ere etsai bihurtu zitzaidan. Bidezidorrean, distira ñabar bitxiak diz-diz hasi ziren ortzadarraren koloreez ñirñirka. Hala ere, argi ñabar haiek hogei segundoz pizturik etengabe txinpartaka jolasean aritu ziren bitartean, neure burua kontrolatzeko gauza izan nintzen. Gero, ahuldurik eta dardarka eseri nintzen.

—Ezin dut gehiago —esan nuen arnasestuka, begiak eskuekin estaliz—. Begietara jo dit, Paul. Eraman nazazu etxera. Baina Paulek gogotik egin zuen barre.

—Ez al nizun esan? Zakurrik bikainena. Eta? Zer iruditzen zaizu?

Beste aldera jiratu, eta txistuka hasi zen. Hanka-hotsa, hauspoa berotutako animalia baten arnasotsa eta zakur baten intziri berezia entzun nituen. Orduan, Paul makurtu egin zen eta ematen zuen airea laztantzen ari zela.

—Tira! Eman eskua!

Eta eskua zakur baten mutur hotz eta matrail-hezurretatik pasarazi zidan. Zakurra zen, dudarik gabe, pointer baten tankera eta ile leun eta motxa zituena.

Ez dago esan beharrik berehala bizkortu nintzela. Paulek lepoan animalari lepokoa jarri, eta musuzapi bat lotu zion isatsean. Eta horrela izan genuen soroetan saltoka zebilen painelu kulunkari bat ikusteko aukera paregabea. Zoragarria zen begientzat lepoko bat eta musuzapi bat galeper-bandara baten aurrean akaziadi batean gelditzen ikustea eta txintik egin gabe hantxe egotea, guk hegaztiei tiro egin bitartean.

Noizean behin zakurrak aipatu ditudan argi distira ñabarrak zabaltzen zituen. Horixe bakarra omen zen —azaldu zidan Paulek— aurreikusitako gabe zuena, eta konpontzen zaila zirudien.

—Familia handia dira distira mota hauek—esan zuen—: argi-txakurrak, urre-ustaiak, ortzadarrak, haloak eta parelioak.

Mineralen eta izotzaren kristaletan, lainoetan, eurian, xirripetan eta hainbat gauzatan egiten duten errefrakzioaz sortzen da distira hori. Eta beldur naiz ez ote den gardentasunari ordaindu beharreko zerga. Lloyd-en itzalari ihes egin diot, baina ortzadarraren distirarekin egin dut topo.

Handik bi egunera, kirats nazkagarri bat sumatu nuen Paulen laborategira sartu aurretik. Aise antzeman nion nondik zetorren, hain baitzen nazkagarria: oro har zakurra zirudien erdi usteldutako masa batetik.

Paul asaldatu egin zen nik aurkitutakoa aztertu ondoren: beraren zakur ikusezina zen, orain argi eta garbi ikusteko modukoa bihurtua. Minutu batzuk lehenago han omen zebilen jolasean, bizkor eta sano. Hurbilagoetik aztertuta, ohartu ginen kankarreko eder batek zanpatu ziola buru-hezurra. Animalia hila izatea harrigarria bazen ere, argitu ezina beste hau zen: horren azkar usteltzea.


—Injektatu nizkion erreaktiboak kaltegabeak dira —azaldu zidan Paulek—. Oso indartsuak dira, hori bai, eta badirudi hiltzea eta usteltzea bat direla. Ez dago gaizki! Ez dago batere gaizki! Beraz, ez da komeni hiltzea. Ez dute kalterik egiten, bat hiltzen ez den bitartean. Baina nork zanpatu ote dio burua zakur honi?

Hala ere, kontu hura azkar garbitu zen, neskame ikaratu batek aldarrika esan zuenean Gaffer Bedshawek goiz horretan bertan, ordubete inguru lehenago, zeharo erotu zela eta etxean lotuta zeukatela, ehiztarien txabolan, Tichlorneren belazean aurkitu zuen piztia erraldoi eta basa batekin burrukan ibili zela esaten baitzuen eldarnioan. Izaki hura, zena zela, ikusezina omen zen, berak bere begiez garbi ikusi zuenez. Hori zela eta, haren emazteak eta alabak negarrez buruari eragiten hasi omen ziren, eta horrek oraindik amorrazio handiagoa ematen omen zion, eta lorazainak eta kotxezainak oraindik gehiago estutu omen zizkioten uhalak.

1902an London Londresan abiatu zen kazetari. Urte horretako udan *The People of the Abyss* (1903) kronika mamitu zuen, Ingalaterrako gizarte txiroaren egoera tamalgarriaren berri ematen duen lana, kapitalismo basatiaren ondorioak gordin azalduta.

Aipatu lan horietaz aparte fikzioan ere islatuko da idazlearen ideologia: *The Iron Heel* (1908) eleberrian eskuizkribu amaitu gabea topatu duen idazle baten bidez jakingo dugu nolakoak izan ziren alegiazko gizarte baten barruko tirabirak, oligarkiaren boterearen inguruko fabulazioa. *Martin Eden* (1908) eleberrian ere klase kontzientziari buruzko kontakizuna harilkatu zuen, giza harremanetan duen eragina agerian lagaz.

Londonen bizitza eta lanak ikertu dituzten adituak ez datoz bat idazlearen



engaiamendua norainokoa izan zen zehazteko orduan: batzuen arabera Londonen sozialismoa epela da oso, bete-betea beste batzuen iritzian, beroa aurreneko urteetan, okertua azkenetan... Beste alde batetik bada Londoni arrazista izatea egotzi diona, haren lanetako askotan eta bizitzako pasarte zenbaitetan horretarako aztarna ikusi dutelakoan. Honetan ere beste hainbatek iritziari aurre egin diote.

Fantasiako literatura ere jomuga eta lan-eremu izan zituen Londonek. Eta harrigarria bada ere, ez dugu idazlea zuzenean lotzen testu-era honekin; bestelako lanek, antza, estali egin dituzte fikzio mota honi egin zizkion ekarpenak. Eta ekoizpenari begiratu bat eginda badu garrantzia: idatzitako hogeita bi eleberrietan lau, eta ia berrehun ipuinetan hamahiru estilo horietakoak dira. Abiapuntua goiztiarra da, izan ere argitara eman zuen lehen ipuina, *A Thousand Deaths* (1899), zientzia-fikzio lana da. *The Black Cat* aldizkariak plazaratu zuen.

Eta generoaren barruan azpi-gaiak asko eta asko dira: aurre-historia,

Paul Tichlornek ikusezintasunaren problema alde horretatik sakontzen zuen bitartean, Lloyd Inwood ez zen atzera geratu. Haren etxera joan nintzen, bidali zidan mezu bati erantzunez, non eskatzen baitzidan bisita egitera joateko, egiten ari zen aurrerapenak azaldu nahi zizkidala eta. Haren laborategia leku isolatu batean zegoen orain, beraren lur zabalen erdian. Arboladi itxi baten erdian zegoen soilgunean eraikia zen. Bidezidor bihurria igaro behar zen hara iristeko. Bidezidor horretatik makina bat aldiz ibilia nintzenez, oso ongi ezagutzen nuen; egin ezazue kontu zenbaterainoko ustekabea hartu nuen, soilgunera iritsi eta laborategirik aurkitu ez nuenean. Tximinia gorriko eraikin eder hura ezkutatua zen. Ez zen han behin ere halakorik izanaren arrastorik ere. Ez harri-hondarrik, ez zabor pilarik, ezer ez.

Eraikina egon zen lekurantz abiatu nintzen. «Hemen behar luke ate aurreko harmailak», esan nuen neure artean. Hitzok esatea egingo nuen, nire oinak zerbaitekin behaztopa egin zuenean. Aurrealderantz estropezu egin, eta kankarrekoa hartu nuen, atea zela ematen zuen zerbaitekin. Eskua luzatu nuen. Atea zen, izan ere. Heldulekua aurkitu, eta birarazi nuen. Eta, berehala, atea bere erroetan biratuz zabaldu zenean, laborategiaren barrenalde osoa azaldu zen. Lloyd agurtu, atea itxi, eta pauso batzuk eman nituen atzera. Ez nuen eraikinaren ezer ere ikusten. Itzuli, eta atea irekita, berriz, altzariak eta barrenaldeko xehetasun guztiak ikusten ziren. Beldurgarria zen benetan ezerezetik argitara —eta baita forma eta kolorera ere— kolpean igarotzea.

—Zer iruditzen zaizu? —galdetu zidan Lloydek eskua emanez—. Kanpoaldeari bi pasada eman nizkion erabateko beltzaz atzo arratsaldean, ea zer moduz funtzionatzen zuen. Zer moduz daukazu buru hori? Kankarreko polita hartu duzu, nik uste.

—Hori ez da ezer —esan zidan zorionak ematen hasi nintzenean etenez—. Badut zuretzat beste gauza bat, hori baino hobea.

Hizketan ari zen bitartean arropak erantzten hasi, eta biluzik geratu zen nire aurrean; potea eta pintzela eskuetan jarri zizkidan eta esan zuen:

—Orain emadazu honen esku bat.

Likido koipetsua zen, lakaren antzekoa, azalean aise zabaldu eta berehala lehortzen zena.

—Hasi aurreko badaezpadako neurri bat da hau —argitu zidan bukatu nuenean—. Baina orain has gaitezen benetakoarekin.

Berak esandako beste pote bat hartu, eta barrura begiratu nuen, baina ez nuen ezer ikusi.

—Hutsik dago —esan nuen.

—Sar ezazu hatz bat.

Esandakoa egin nuen eta hatza busti eta hoztu egin zitzaidala sentitu. Eskua ateratzean hatz erakusleari begiratu nion, sartu nuenari alegia, baina jada ez zegoen han. Mugitu nuen eta konturatu nintzen, muskuluen gogortze eta biguntze aldizkakoari erreparatuz, hatza mugitzen ari nintzela, baina iruzur egiten zion nire ikusmenari. Hatz bat moztu zidatela ematen zuen, ez nuen haren ikusmenezko frogarik, argitara luzatu, eta haren itzala lurrean ederki nabarmendua ikusi nuen arte.

Lloydek barre murrirtza egin zuen:

—Orain, emadazu gorputz osoan eta ondo zabaldu begiak. Itxuraz hutsik zegoen potean sartu brotxa, eta brotxakada handi bat eman nion bularraldean. Haragia brotxaren azpian ezkutatu zen pixkanaka. Ezkerreko hanka pintatu nion eta grabitatearen lege guztiei ihes egiten zien hankabakarra bihurtu zen nire laguna. Eta, gero, brotxakadak eman ahala, gorputz-atalez atal, pintatu eta ezabatu nuen Lloyd. Izua hezurretaraino sartzeko moduko esperientzia izan zen eta poztu nintzen bistan haren begi beltz distiratsuak besterik geratu ez zitzaizkionean, airean zintzilikaturik bezala.




munduaren akabera, etorkizuneko gerrak, utopiak... Bere ikuskera politikotik gerutu dagoen zientzia-fikzioa da sarri: gizarteak berak zituen benetako arazoak alegiazko testu-inguru batean kokatu zituen. Edo, bestela, aurreko idazleek eragindakoa, Mary Shelley, Edgar Allan Poe, H.G. Wells, Jules Verne, H. Rider Haggard... esaterako. Era berean Londonen ikuspuntu eta estiloak George Orwellen lanetan izango du indarra.

Nabarmentzekoa da *The Star Rover* eleberria (1914),



San Quintineko kartzelan giltzapetuta bizi den preso baten berri ematen diguna. Jasandako tratu txarrei ihes egiteko gorputzetik kanpora egiten dituen bidaiak kontatzen ditu; pertsonaiaren aurretiko «bizitzen» kronika hauek historian zehar eramango dute irakurlea.

«Itzala eta distira» ipuinean ikusezintasuna da aztergai. London ez zen hutsetik abiatu, alde z aurretiko saioak beste idazle batzuen bidetik emanda zeuden eta. Esanguratsuen H.G. Wellesen *The Invisible Man* dugu, 1897an kaleratutakoa. Euskarazko bertsioa Miren Arratibelek eskaini zuen 1997an (Literatura Unibertsala Bilduma: *Gizon ikusezina*). Wellsek berak «The New Accelerator» (1901) lanean oster a ekin zion gaiari. Beste proposamen bat Edward Page Mitchells idazlearena da, 1881eko «The Crystal Man».



—Badut likido findu eta kaltegabea hauentzat —esan zuen—. Xirripagailu batekin lurrunaldi bat eman, eta listo! Ez nago.

Lan hori maisuki bete ondoren, esan zuen:

—Orain gelan barrena mugitzera noa, eta zuk esan zer sentitzen duzun.

—Hasteko, ezin zaitut ikusi —esan nuen, eta haren algara alaia hutsunearen erditik zetorrela aditu nuen—. Ezin duzu itzala desagerrarazi, jakina —erantsi nuen—, baina hori espero izatekoa zen. Nire begien eta gauza baten tartetik igarotzen zarenean, gauza hori ezkutatu egiten da, baina begiak lausotuak ditudala iruditzen zait, hain baita harrigarria eta ulertezina horrela ezkutatzea. Azkar mugitzen zarenean, fenomeno horien segidak harridura sortzen du. Marrak lausotuak daudelako sentazioak begietan min eman, eta burua nekatu egiten dit.

—Baduzu nire presentziaren beste aztarnarik?

—Bai eta ez —erantzun nuen—. Nire ondoan zaudenean, depositu heze, kripta itzaltsu eta meategi sakonek ematen dutenaren antzeko zerbait sumatzen dut. Eta itsasgizonek gau ilunetan lehorrera hurbiltzen ari direla sumatzen duten bezala, zure gorputzaren hurbiltasuna horrelaxe sentitzen dudala uste dut. Baina dena zehaztugabea eta ukiezina da.

Laborategian hitz-aspertu luze bat egin genuen azken goiz horretan eta, alde egiteko bihurtu nintzenean, bere esku ikusezina nirean jarri, eta urduri estutu zidan, hau esanez:

—Orain mundua nire mende jarriko dut!

Eta ez nintzen ausartu Paul Tichlornek ere antzeko emaitza lortua zuela esatera. Etxean Paulen ohar bat aurkitu nuen, berehala harengana joateko eskatzen zidana, eta eguerdia pasatua zen haren etxeko bide pribatura nire ibilgailuan iritsi

nintzenean. Paulek bere tenis-zelaitik deitu zidan, eta ni jaitsi, eta hurbildu egin nintzaion. Baina hantxe zutik, ahozabalik nengoela, tenis-pilota batek jo ninduen besoan. Jiratu nintzenean, beste bat zitzuan pasa zitzaidan belarri ertzetik. Erasotzailea ikusten ez banuen ere, pilotak han heltzen ziren ezerezetik, eta aitortu behar dut zaparrada galanta izan zela. Baina jo ninduten pilotak bere lekura itzultzen hasi zirenean, ohartu nintzen zer gertatzen zen. Erraketa bat hartu, eta begiak ondo zabalduz, agertu eta desagertu egiten zen ortzadar argi dizdizari bat ikusi nuen lurraren gainean hegan. Haren gainera joan nintzen lasterrean eta erraketarekin zartako on batzuk eman ondoren, Paulen ahotsa garbi heldu zitzaidan belarrietara:

—Aski da! Aski da! O! Ai! Ai! Bale! Larru bizian ari naiz zartakoak hartzen, aizu! Ai! Ongi portatuko naiz! Ongi portatuko naiz! Nire metaformosia azaldu besterik ez nizun egin nahi —esan zuen intzirika, eta mailatuak igurzten imajinatu nuen.

Handik pixka batera, saio bat egin genuen tenisean, niri abantaila txiki bat emanda, ezin bainuen ikusi non zegoen kokatua, salbu eta Paulen, eguzkiaren eta hiruron arteko angelu guztiak posizio egokian zeudenean. Orduan distiraten zuen, baina orduan baizik ez. Baina distirak ortzadarra baino biziagoak ziren: urdina, garbiagoa; morea, bere gisakoetan delikatuena; horia, distirantagoa, eta tarteko ñabardura guztiak, berriz, ortzadarraren distira bortitzarekin itsutzen duen diamantearen erlantzaz dizdizaria zuten.


Baina gure jolasaren erdian atsegina ez zen hotz moduko bat sentitu nuen, meategi sakonak eta kripta ilunak gogorarazi zizkidana, goiz hartan sumatu nuenaren antzeko hotza. Berehala, pilota batek botea egin zuen sare ondoan eta, une berean, hogeiren bat pauso harantzago, ortzadarraren distira zabaldu zuen Paul Tichlornek. Ezin zitekeen bera izan pilota errebotarazi zuena, eta izutu egin nintzen Lloyd Inwood tartean zela ohartzean. Ziur egoteko, haren itzala bilatu nuen,



Bestetik, Maupassantek «Horla» narrazioan (1886) pertsonaia ikusezin batek sortzen duen ezinegona azaldu zuen (euskarazko bertsioa eskura dugu Josu Zabaletak itzulitako *Fantasiako ipuinak* bilduman, Literatur Unibetsala Bilduma, 2000). Ambroce Biercek ere heldu zion topiko honi «The Dammed Thing» kontakizunean (1893).

Londonen azkenetak lanetan bada guretzat aipagarria dena: *The Little Lady of the Big House* du izena, 1916an kaleratutakoa. Bertan, bi pasartetan, euskaldunak ditu aipu, eta nola ez, artzain euskaldunak. Horrela deskribatzen ditu: «Two Basque herders brought up the rear. They were short, broad, swarthy men, black-eyed, vivid-

faced, contemplative and philosophic of expression». Gazte hil zen Jack 1916an, berrogei urte eskas zituenean. Heriotzaren gainean ere biografoak ez datoz bat. Egia esan zurrutak jota zebilen idazlea, horrek osasunerako dakartzan ondorio txar guztiekin. Aldi horretan ere diru kontuek kezka sortu ei zioten. Bizitzan zehar Jacken osasuna makala izan zen. Beharko: Klondiken izan zenean eskorbutuak jo zuen, itsasoan egindako bidaietako batzuetan ere eritasun tropikalak jasandakoa zen, eta bizitzako azken aldian disenteria eta uremia ezin sendatu zebilen. Hainbatek, suizidioaren ideia erabat bazter laga barik, hauxe diote: gaixo larria zen Jack eta minei aurre egiteko



eta hantxe aurkitu: haren gorputzaren ertz-marra lurrean argiro mugitzen zen lausogunea zen. Haren erronkaz oroitu nintzen, eta segurutzat jo nuen elkarren lehiako urte luzeak sekulako borrokan bukatzeko zorian zeudela.

Pauli oihu batez ohartarazi nion; marraka-hots basa bat entzun nuen, eta erantzunetan antzeko beste bat. Lausogune ilun bat ikusi nuen tenis-zelaian lasterka, eta argi ñabarraren eztanda bat, ziztu berdinean haren bila zihoana; gero, itzala eta distira bat egin ziren eta zartada ikusezinen hots entzun zen. Sarea nire begi ikaratuen aurrean erori zen. Borrokalariengana oihuka joan nintzen oldarrean:

—Jainkoaren izenean!

Baina haien gorputz elkar-trabatuek nire belaunekin oztopo egin, eta lurrera bota ninduten.

—Ez sartu tartean, adiskide —esan zidan Lloyd Inwooden ahotsak ezerezetik. Gero Paulek oihuka:

—Bai, adiskidetze gehiegi izan dugu lehen ere!

Haien ahotsak nondik zetozen kalkulatu, ohartu nintzen banatuak zirela. Ez nuen Paul lokalizatu, eta Lloyd itzalera hurbildu nintzen. Baina balantzaka utzi ninduen matraileko bat hartu nuen beste aldetik, eta Paulek hau esan zidan amorrazioz oihuka:

—Oraindik ere tartean sartzeko gogorik geratzen zaizu?

Berrito elkar-trabatu ziren. Zartakoen hotsak, intziri eta arnasotsak, bat-bateko distirak eta itzalaren ustekabeko mugimenduek argi adierazten zuten borroka ez zela txantxetakoa.

Oihuka hasi nintzen laguntza eske, eta Gaffer Bedschaw tenis-zelaira etorri zen korrika. Hurbildu zenean, harrituta begiratzen zidala ohartu nintzen, baina borrokalariekin oztopo egin, eta lurrera erori zen muturrez aurrera.

—Jainkoa! Mendean ditiat! —Etsipenezko makakorro bat eginez zutitu, eta erotu balitz bezala atera zen handik.

Ezin nuen ezer egin eta, hala, begira geratu nintzen, liluraturik eta ahalmenik gabe. Eguerdiko eguzkiak gupidarik gabe jotzen zuen zelai hutsa.

Hutsik baitzegoen. Itzalaren lausogunea eta ortzadar-distirak, oin ikusezinek altxatzen zuten hautsa, borroka gogorrean egindako ahaleginean erauzitako lurra eta gorputzek jotzen zuten bakoitzean okertzen zen sarea besterik ez zen ikusten. Hori besterik ez zen, baina handik puska batera bukatu zen hori ere. Ez zen distira gehiago izan, eta itzalak, orain erabat geldirik, forma luzea hartu zuen; orduan oroitu nintzen zer-nolako sendotasuna nabari zuten beren haur-aurpegietan, ur-putzu sakoneko freskotasunean sustraiei gogor eutsiz egon ziren hartan.

Handik ordu betera aurkitu ninduten. Zerbitzariak gertatutakoaren aztarnaren bat atera zuten eta denak batera alde egin zuten Tichlorneren zerbitzutik. Gaffer Bedschaw ez zen sekula bere onera etorri hartutako kolpe hartatik eta eroetxe batean sartuta dago sendatzeko esperantzarik gabe. Lloyd en eta Paulen aurkikuntza zoragarriak berekin batera hil ziren, eta bien ahaide nahigabetuek deseginarazi egin zituzten haien laborategiak. Ni, berriz, ez naiz batere arduratzen kimikako ikerketaz, eta zientzia, berriz, mintzagai debekatua da nire etxean. Nire arrosadira itzuli naiz. Aski dut izadiko koloreekin.

Jack London

morfina hartzen zuen, eta baliteke mina arindu nahian txarto neurtzea idazleak berak prestatzen zuen analgesikoa. 1916ko azaroaren 22an hil egin zen.

